



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

Batzar Nagusiek apirilaren 9ra arte luzatuko dabe Mauro Saraviaren “Azken Batailoia” erakusketea

Bilbon, 2016ko martiaren 22an.

Ikusleen artean lortu dauen arrakastea dala eta, Bizkaiko Batzar Nagusiek apirilaren 9ra, zapatuta, arte luzatu dabe hasera batean Aste Santura arte erakutsi behar zan Mauro Saravia argazkilari txiletarraren “Azken Batailoia” erakusketea. Erakusketak, 1936ko Euzko Gudarosteko kide izandakoen erakustaldirik osoena jasoten dau, gerra hasi zanetik zortzi hamarkada igaro diran arren, askatasuna lortzeko ametsak bizirik dituen Gerra Zibileko gudarien eta milizianoen belaunaldi haretako arpegiak eta testigantzak batuz, lekukotza grafiko bilakatuz.

27 arpegiren eta 54 argazkiren bitartez egindako erakusketea Bizkaiko Batzarretako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6) egongo da apirilaren 9ra arte, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte, etenik barik, eta zapatuetan eguerdiko 14:00ak arte. Sarrera librea izango da.

Mauro Saraviaren lana Elgetara (Gipuzkoa) joango da gero, eta jarraipena be izango dau, bere erretratueta 36ko gudariak eta milizianoak erakutsi ostean, bere hurrengo asmoa, Francoren Diktaduraren errepresinoa jasan eben eta hari aurre egin eutsien emakumeen bizipenak jasotea dalako. Datozan hilebeteetan Saraviak Gerraren eta Diktaduraren kontrako Erresistentziaren beste arpegi hori hurbilduko deusku bizkaitarroi.

Lekua: Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoa (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales amplían hasta el 9 de abril la exposición “El Último Batallón” de Mauro Saravia

Bilbao, a 22 de marzo de 2016.

Debido al éxito de público, las Juntas Generales de Bizkaia han decidido ampliar hasta el sábado, 9 de abril, la exposición “Azken Batailoia” del fotógrafo chileno Mauro Saravia que había sido programada inicialmente hasta esta Semana Santa. La muestra recoge la más completa muestra de excombatientes del Ejército vasco de 1936 Eusko Gudarostea, reuniendo rostros de gударis y milicianos de la Guerra Civil, convertidos en testimonios gráficos de aquella generación de jóvenes soñadores, cuyos anhelos de libertad siguen vivos ocho décadas después de iniciarse el conflicto bélico.

La exposición, que se construye a través de 27 caras y 54 fotografías, permanecerá abierta hasta el 9 de abril en la céntrica sala bilbaína del Parlamento de Bizkaia (C/Hurtado Amezaga, 6), con horario ininterrumpido de 8 de la mañana a 8 de la tarde, de lunes a viernes; y los sábados, hasta las dos del mediodía. La entrada es libre.

El trabajo de Mauro Saravia que viajará después a Elgeta (Gipuzkoa), tendrá su continuidad ya que, tras plasmar en sus retratos a gударis y milicianos del 36, ahora se apresta a recoger las vivencias de mujeres represaliadas y resistentes frente a la Dictadura franquista. En los próximos meses, Saravia acercará al público vizcaíno esta otra cara de la guerra y la resistencia contra la Dictadura.

Lugar: Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao)